

ARANZADI ERAZTUNTZE BULEGOKO DOKUMENTUAK

| |
|--|
| <p>ARANZADIKO LOGOTIPOA ETA 'ARANZADI' IZENA ERAZTUNKETA TESTUINGURUAN ERABILTZEKO ARAUAK</p> |
|--|

Bertsioa: 2025eko abuztua

Dokumentu hau honela aipatu:

Aranzadi Erantzuntze Bulegoa, 2025. Aranzadiko logotipoa eta 'Aranzadi' izena erantzuntze testuinguruan erabiltzeko arauak, 2025eko abuztuko bertsioa.

Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia.

TESTUINGURUA

Sarritan, Aranzadi Eratzuntze Bulegoari adskribatutako eraztunleek beraiek garatutako ekintzetan eta sare sozialetan edota beste bide batzuk erabilia burutzen duten informazioaren hedapenean, Aranzadiko logotipoa eta 'Aranzadi' markari lotutako beste baliabide batzuk erabili nahi dituzte. Dokumentu hau, markaren erabilera arautzeko eta erabilerarako erizpide orokorrak zehazteko prestatu da.

LOGOTIPOA

Printzipio orokorra:

Orokorrean, eraztunle aditu edo espezifiko izanda, Aranzadi Eratzuntze Bulegoari adskribatutako edozein pertsonak eraztunketari zuzenean lotutako ekintzetan Elkartearen logotipoa erabili dezake, baldin eta ekintza, helburuekin, indarrean den legediarekin eta jarduera hau arautzen duten printzipio etikoekin bat badator.

Hortaz, eraztunketarekin zuzenean lotuta ez dauden ekintzak kanpo geratzen dira, hala nola: aldarrikatze kanpainak, salaketak, gizarte-presioa garatzeko neurriak edo jarrera politikoa dakarten adierazpenak.

Komunikazioa:

Logotipoa eraztunketarekin lotutako jarduerak, proiektuak eta emaitzak jakinarazteko erabili daiteke. Honek, beste batzuen artean, web-orriak, sare sozialak, kartelak edo txostenak barne hartzen ditu.

Orokorrean, eraztunketa testuinguru estandarretan logotipoa erabiltzeko ez da baimenik eskatu behar (laginketa gune iraunkorretako saioak, jarraipen-proiektuak, etab.). Hala ere, komunikabideetan inpaktu handia sor dezaketen ekintzen kasuan edo Elkartearen ospe onean eragina izan dezaketen kasuetan, aurretik kontsulta egitea gomendatzen da. Horrelakoetan, ring@aranzadi.eus helbide elektronikora eta komunikazioa@aranzadi.eus kopian jarrita, mezua bidali behar da.

Erabilera arduratsua:

Nahasmena sortzen duten testuinguruetan edo eraztunketarekin argi erlazionatuta ez dauden kasuetan, ez da logotipoa erabili behar. Elkartearen eta Eraztuntze Bulegoaren ospe ona kaltetzen duten ekintzak barne.

Gainera, eraztunketarekin erlazionatuta egon arren, irabazi-asmoko ordainsari ekonomikoekin lotutako jardueretan ezin da logotipoa erabili. Dena den, jasotako ordainsaria pertsonalaren, desplazamenduen, eraztunketa materialaren eta boluntarioen zein ardura duten eraztunleen kostua ordaintzeko erabili behar ez bada, logotipoa erabili liteke.

ELKARRIZKETAK KOMUNIKABIDEETAN

Orokorrean, aurretiko baimena izan gabe, ezin da Aranzadiren izenean hitz egin. Elkarrizketetan edo komunikabideetan egindako adierazpenenetan 'Aranzadi' izena erabili ahal izateko, Elkartearen oniritzia izan beha da. Horretarako ring@aranzadi.eus helbide elektronikora eta komunikazioa@aranzadi.eus kopian jarrita, mezua bidali behar da.

ARANZADI AFILIAZIO ERAKUNDE MODUAN ARGITALPENETAN

Argitalpen zientifikoetan Aranzadi afiliazio erakunde moduan erabili daiteke. Dena den, kasu hauetan, Eraztuntze Bulegoko Zuzendaritzaren baimena aurretik eskatu eta jaso behar da.

Helbide hau jarri behar da: Aranzadi Eraztuntze Bulegoa, Aranzadi Zientzia Elkarte, Zorroagagaina 11, 20014 Donostia.

ZIGORRAK

Aranzadiko logotipoaren eta izenaren iruzurrezko erabilerak edo erabilera desegokiak, ondorioztat Elkartearen zigorra izanen du; kasurik larrienetan, zigorrak eraztunle-ziurtagiria behin-behinean edo behin betiko kentzea edo, Elkartetik kanporatzea ekar dezake. Zigor hauek eraztunketa edota Elkartearen irudia asko kaltetzen denean, Elkartearen misio, ikuspuntu eta balioen aurka doazen egoeretan edo naturaren

ikerketa zientifikoa eta kontserbazioa arautzen dituzten oinarritzko printzipioak zein oinarritzko giza eskubideak larriki hausten direnetan ezarriko dira.